



Unitate Didaktikoa

Ikasgai kurrikularretan aplikatzekoa

ZERUERTZ. HEZKUNTA ETA SENTSIBILIZAZIO INTERKULTURALA DBHKO IKASLEENTZAT

Gaztelania eta literatura

01. Datu orokorrak
02. Funtsezko konpetentziak, konpetentzia espezifikoak, ebaluazio irizpideak eta oinarriko jakintzak.
03. Jardueraren deskribapena
04. Baliabideak eta materialak



ZERUERTZ



Datu orokorrak

TITULUA: Kulturantzatasun literarioa

ETAPA: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

ZIKLOA: 2. zikloa

DENBORALIZAZIOA: Jarduera hau egiteko, ikasgelan 2 lan-saio egin behar direla uste da (1. Zereginaren sarrera eta prestaketa; 2. Bateratze-lana). Horri gehitu beharko zaio ikasgelatik kanpo elkarriketa planifikatu eta egiteko behar den denbora, ikasleek beraiek balioetsitako premien arabera zehaztuko dena.

Jarduera hau ikasturtean zehar egin daiteke, gai horri esleitutako beste zeregin batzuekin batera.

JARDUERAREN DESKRIBAPENA ETA EDUKIAK

- Literatura-adierazpenari buruzko esplorazioa hainbat herrialdetan.
- Pertsona migratuei elkarriketak egitea beren jatorrizko herrialdeetako literaturari buruz.
- Kultura-jatorriak literatura-adierazpenean eta/edo kultura-aniztasunak literaturan duen eraginari buruzko gogoeta.

HELBURUAK

- Hainbat herrialde eta kulturatako aniztasun literarioa ezagutzea eta balioestea.
- Migratutako persona bati elkarriketa bat egitea, bere jatorrizko herrialdeko literatura-adierazpide nagusiak aztertze.
- Migratuekiko eta haien kulturekiko enpatia sustatzea.
- Komunitateetako kultura-aniztasunaren funtsari eta horrek identitate kolektiboan duen eraginari buruz hausnartzea.

ZERUERTZ



Funtsezko konpetentziak, konpetentzia espezifikoak, ebaluazio irizpideak eta oinarrizko jakintzak

FUNTZESKO KONPETENTZIAK

- Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentzia (HKK)
- Eleaniztasunerako Konpetentzia (EK)
- Konpetentzia Pertsonala, Soziala eta Ikasten Ikastekoa (KPSII)
- Konpetentzia Digitala (KD)
- Herritar Konpetentzia (HK)
- Ekimenerako Konpetentzia (EK)
- Kulturaren Kontzientzia eta Adierazpenerako Konpetentzia (KKAK)

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.KONP.ESPE.: Munduaren hizkuntza aniztasuna deskribatu eta estimatzea, abiapuntua izanik ikasleen hizkuntzen aitortpena eta Espainiaren errealitate eleaniztun eta kultura-aniztunarena, Espainiako hizkuntzen jatorria eta garapen soziohistorikoa aztertuz, baita gaztelaniaren dialekto nagusien ezaugarriak ere, helburua izanik hizkuntzari buruzko hausnarketa sustatzea, estereotipo eta aurreiritzi linguistikoei aurre egitea eta aniztasun hori kultura aberastasunaren iturritzat hartzea.

1.1.EBALU.IRIZP.: Espainiako hizkuntzak eta gaztelaniaren aldaera dialektalak ezagutzea, arreta berezia jarritz norberaren lurraldekoan, oinarritzko zenbait nozio identifikatuz Espainiako hizkuntzei nahiz ikasleen hizkuntza errepertorioei dagokienez, haien ezaugarriak erkatuz ahozko eta idatzizko adierazpenetan eta adierazpen multimodaletan.

1.2.EBALU.IRIZP.: Aurrejuzgu eta estereotipo linguistikoak identifikatzea, errespetuzko jarrera bat hartuz, kulturen, hizkuntzen eta dialektoen aberastasuna baloratzen duena, ingurunekeo dibertsitate linguistikoaren behaketatik abiatuta.

2.KONP.ESPE.: Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertu eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informazio aipagarriena bilduz, igorlearen ikuspegia eta asmoa identifikatuz eta fidagarritasuna, forma eta edukia baloratuz, ezagutza eraikitzeke, irizpidea eskuratzeko eta aisialdiaren eta gozamenaren aukerak zabaltzeko.

2.1.EBALU.IRIZP.: Esanahi orokorra, egitura eta informaziorik aipagarriena ulertzea, behar komunikatiboen arabera eta igorlearen asmoaren arabera, esparru desberdinetako ahozko testu eta testu multimodal errazetan, kode desberdinen arteko interakzioa aztertuz.

3.KONP.ESPE.: Ahozko testuak eta testu multimodalak produzitzea jariatasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz, aintzat hartuta diskurso-generoen berezko konbentzioak, eta ahozko interakzioetan parte hartzea lankidetzat eta errespetua oinarri dituen jarrera batekin, bai ezagutza eraikitze eta lotura pertsonalak ezartzeko, bai modu aktibo eta informatuan parte hartzeko testuinguru sozialetan.

3.1.EBALU.IRIZP.: Ahozko narrazio eta azalpen errazak egitea, planifikazio-maila desberdina edukita, norberaren, gizartearen eta hezkuntzarako intereseko gaiak buruz, diskurtsogeneroen berezko konbentzioekin bat, jariatasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz, euskarri desberdinetan eta hitzeko eta hitzik gabeko baliabideak erabiliz eraginkortasunez.

3.2.EBALU.IRIZP.: Ahozko interakzio informalean, talde-lanean eta elkarriketarako ahozko egoera formalean parte hartzea, modu aktibo eta egokian, entzute aktiboko jarrerarekin eta elkarriketarako eta hizkuntza kortesiako estrategiak erabiliz.

9.KONP.ESPE.: Hizkuntzaren egituraren eta haren erabileren gaineko ezagutza mobilizatzea eta gogoeta egitea gero eta autonomia handiagoarekin hautu linguistikoei eta diskurtsiboei buruz terminologia egokia erabiliz, kontzientzia linguistikoa garatzeko, komunikazio erreperitorioa handitzeko eta trebetasunak hobetzeko, hala ahozko eta idatzizko produkzioarako, nola ulermen eta interpretazio kritikorako.

9.1.EBALU.IRIZP.: Norberaren testuak modu gidatuan berrikustea eta hobetzeko proposamenak egitea, eta, horretarako, aldaketak arrazoitzea gogoeta metalinguistikotik eta interlinguistikotik abiatuta eta metahizkuntza espezifikoarekin.

10.KONP.ESPE.: Norberaren komunikazio praktikak erabiltzea elkarbizitza demokratikoaren alde, gatazkak elkarriketaren bidez konpontzearen alde eta pertsona guztien eskubide-berdintasunaren alde, hizkuntza ez-diskriminatzailea erabiliz eta agintekeriak baztertuz hitzaren bidez, hizkuntzaren erabilera eraginkorra ez ezik, etikoa eta demokratikoa ere sustatzeko.

10.1.EBALU.IRIZP.: Hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak identifikatu eta alboratzea, baita hitzen bidezko agintekeriak eta hizkuntzaren erabilera manipulatzaileak ere, hizkuntza-, testu- eta

diskurtsomailan erabiltzen diren osagaien inguruko hausnarketa eta azterketatik abiatuta, baita pertsonen komunikazioa bideratzen duten hitzik gabeko osagaietatik ere.

10.2.EBALU.IRIZP.: Estrategiak erabiltzea gatazkak elkarriketaren bidez konpontzeko eta adostasunak bilatzeko, norberaren, hezkuntzaren eta gizartearen esparruetan.

OINARRIZKO JAKINTZAK

A. HIZKUNTZAK ETA HIZTUNAK

A.1. Norberaren biografia linguistikoa eta ikastetxeko hizkuntza aniztasuna behatzea. Hizkuntzen familiak eta munduko hizkuntzak.

A.2. Espainiako hizkuntzak: jatorria, banaketa geografikoa eta oinarrizko nozioak. Eleaniztasunaren eta dibertsitate dialektalaren arteko aldea.

A.5. Gogoeta interlinguistikoaren hastapenak.

A.7. Aurreiritzi eta estereotipo linguistikoak identifikatzeko estrategiak eta nola saihestu aztertzea.

B. KOMUNIKAZIOA

B1. TESTUINGURUA: KOMUNIKAZIO EGINTZAREN OSAGIAK

B1.1. Komunikazio egintzaren osagaiak: egoeraren formaltasun-maila eta izaera (publikoa edo pribatua); solaskideen arteko distantzia soziala; komunikazio xedeak eta asmoen interpretazioa; komunikazio kanala eta komunikazioaren hitzik gabeko osagaiak.

B2. DISKURTSO-GENEROAK

B2.1. Oinarrizko testu sekuentziak, arreta berezia jarritz narrazio, deskripzio, dialogo eta azalpenenetan eta jarraibideetan.

B2.2. Testuen ezaugarriak: koherentzia, kohesioa eta egokitasuna.

B2.3. Esparru pertsonalaren berezko diskurtso-generoak: elkarriketa.

B2.4. Hezkuntza esparruaren berezko diskurtso-generoak.

B3. PROZESUAK

B3.1. Ahozko eta idatzizko interakzio informala: hitza hartzea eta uztea. Elkarriketako lankidetza eta hizkuntza kortesia. Entzute aktiboa, asertibitatea eta gatazkak dialogo bidez konpontzea.

B3.2. Ahozkoaren ulermena: testuaren esanahi orokorra eta testuko zatien arteko erlazioa, informazio garrantzitsua hautatu eta gordetzea. Hitzeko nahiz hitzik gabeko hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak detektatzea. Testuaren forma eta edukia baloratzea.

B3.3. Ahozkoaren ekoizpen formala: plangintza eta informazio-bilaketa, testualizazioa eta berrikuspena. Ikus-entzuleen arabera eta azalpenaren denborara egokitzea. Hitzik gabeko osagaiak. Diskurtsoaren eta hizkuntzaren ezaugarriak ahozkoaren formalean.

B4. OSAGAI LINGUISTIKOAK EZAGUTZEA ETA DISKURTSOAN ERABILTZEA

B4.2. Baliabide linguistikoak erregistroa komunikazio egoerara egokitzeko.

B4.4. Kohesio mekanismoak. Denborazko, azalpenezko, ordenazko eta kontrastezko testulokailuak. Barne erreferentziako mekanismo gramatikalak (ordezkapen pronominalak eta adberbio-ordezkapenak) eta lexikoak (errepikapenak, sinonimoak, hiperonimoak eta elipsia).

B4.5. Aditz formak koherentziaz erabiltzea testuetan. Lehenaldiak narrazioan. Aditz denboren korrelazioa kontatutako diskurtsoan.

D. HIZKUNTZARI BURUZKO HAUSNARKETA

D.1. Ahozko hizkuntzaren eta idatzizkoaren arteko diferentzia nagusiak eta intersekzioak, alderdi sintaktikoak, lexikoak eta pragmatikoak aintzat hartuta.

Z E R U E R T Z



Jardueraren deskribapena

1. FASEA. SARRERA (IRAKASLEEN ALDETIK)

Migrazioaren gaia aurkeztea, eta ikasleak motibatzea kultura-aniztasunaren garrantziaz eta honek hizkuntzetan eta literaturan duen eraginaz, hausnartzera.

- Horretarako, irakasleak *DBHko ikasleekin kulturartean hezteko eta sentsibilizatzeko gida didaktikoan* oinarritu ahal izango dira ezagutza transferitzeko. Gida hori Zeruertz-eko taldeak egin zuen, ele bitan (gaztelaniaz eta euskaraz), 2022ko edizioan.

2. FASEA. IKASLEAK ELKARRIZKETARAKO PRESTATZEA

Fase honetan, irakasleek egin beharreko jarduera sartu beharko diete ikasleei; hau da, elkarrizketa bat egin beharko diete migratutako pertsonei. Ikasleek inguruko pertsona migratu bat elkarrizketatu beharko dute, guri dagokigun gaiari buruz, literaturari buruz, alegia.

Elkarrizketa prestatzeko eta munduko herrialdeetan dagoen kultura-aniztasunari buruzko testuinguru teoriko bat sortzeko, ikasleek literatura-adierazpena ikertu beharko dute hainbat herrialdetan, oro har, eta elkarrizketatutako pertsona migratuaren jatorrizko herrialdean, bereziki. Ekintza horrek aukera emango dio ikasleari irekitasun-posizio batean jartzeko, jakin-min-egoera bat sustatzeko, hurrengo zeregina errazteko, hau da, elkarrizketan adierazitako galderak egiteko.

3. FASEA. ELKARRIZKETA PERSONA MIGRATU BATI

Eskuratutako ezagutzatik abiatuta, ikasleek galdera-gidoi bat prestatu beharko dute elkarrizketa zuzentzeko. Aurkezpenaz, migratutako pertsonaren sarrera gisa, eta agurraz gain, elkarrizketatuari egindako ekarpena eskertzeko, elkarrizketaren gorputzean kulturartekotasunarekin eta literaturarekin lotutako galderak izango dira.

Ondoren, elkarrizketa hau egiteko laguntza eta adibide gisa, galderen zerrenda bat eskaintzen da [1. eranskinean](#), ikasleek, edozein ikasturtetan daudela ere, beren interesa eta lehentasuna kontuan hartuta, elkarrizketa gidatzeko orientabide bat aukeratu ahal izan dezaten.

4. FASEA. ELKARRIZKETAREN AURKEZPENA IKASGELAN

Elkarrizketa egin ondoren, interesgarria izan liteke gelan espazio bat bilatzea esperientzia horien trukea eta ikasleen arteko elkarrizketen ondoriozko pertzepzioak sustatzeko. Horretarako, eta hizkuntza mintzatua ebaluatzeko modu gisa, elkarrizketa eta horren ondoriozko esperientzia aurkeztea proposatzen da.

ZERUERTZ



Baliabideak eta materialak

BEHARREZKO BALIAKIDEAK

- Interneterako sarbidea eta ikerketa-materiala (irakasleek baloratu beharrekoa).
- Elkarriketak grabatzeko gailu elektronikoa, beharrezkoa bada, ondorengo aurkezpen-lana errazteko.

IRAKASLEENTZAKO MATERIAL GEHIGARRIAK

- [Aula Intercultural](#)
- [Ministerio de Educación y Formación Profesional](#)

ZERUERTZ



1. eranskina. Eredugaldere zerrenda

1. Zer esan nahi du literaturak zuretzat eta nola lotzen duzu zure jatorrizko kulturarekin?
2. Zure kulturaren zer alderdi edo elementu gustatuko litzaizuke gehien islatzea irakurtzen duzun literaturan?
3. Zer garrantzi du literaturak zure jatorrizko kulturaren?
4. Zer desberdintasun edo antzekotasun aurkitzen dituzu zure kulturako literaturaren eta ezagutzen dituzun edo interesatzen zaizkizun beste kultura batzuetako literaturaren artean?
5. Literaturaren zer alderdik laguntzen dizute zure kulturarekin edo beste kultura batzuekin konektatzen?
6. Zure kulturako zein autorek edo literatura-lanek markatu edo eragin zaituzte irakurle gisa?
7. Zer baloratzen edo estimatzen duzu beste kultura edo herrialde batzuetako literaturaz?
8. Zer literatura mota ezagutu edo arakatu nahiko zenuke?
9. Zure ustez, zer zeregin du literaturak integrazioan eta kulturen arteko bizikidetzan?
10. Ezagutzen al duzu kultura-aniztasuna sustatzen duen literatura-jarduerarik edo -ekimenik?
11. Zure ustez, zer erronka edo proposamen daude kulturarteko literatura sustatzeko?
12. Zer iradokizun edo gomendio egingo zenituzke migratutako pertsonen literaturan duten sarbidea edo parte-hartzea hobetzeko?
13. Zer mezu edo gogoeta partekatu nahiko zenuke literaturari eta migrazioari buruz?

ZERUERTZ

